



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2023ko UZTAILAREN 18AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2023ko uztailaren 18an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA :	Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK :	Ana Agesta Echecolonea
	Jose M ^a Aranzabe Urruzola
	Nagore Arizeta Garmendia
	Unai Sorarrain Urruzola
	Gillermo Otegi Zubillaga

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
- ✓ 2023ko ekainaren 27an egindako ez ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. UEMA-ko udal ordezkariaren ordezkoa izendatzea.**
- 5. Tolosaldeko 24 udalen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, Andragora, Tolosaldeko emakumeen etxea kudeatu, finantzatu, jarraipena egin eta kontrolatzeko.**
- 6. 2022 urteko kontu orokorraren onespena.**
- 7. 2/2023 zenbakidun kreditu aldaketaren hasierako onespena.**
- 8. 3/2023 zenbakidun kreditu aldaketaren onspena (konpromiso kredituak).**
- 9. Udal garbitzailearen abuztuko oporrak direla eta honi ordezkatzeko A.M. andreari lan kontratua.**
- 10. Alkizako udal langileen opor egutegiaren onspena.**
- 11. V.B.S. eta D.B.P. jaun/andreak euskara ikasteko eginiko diru-**



ALKIZAKO UDALA

laguntza eskaeraren azterketa.

12. Aiztondo zerbitzuen mankomunitateari 2023ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.

13. Aiztondo pilota txapelketaren kitapena dela eta Zizurkilgo Udalarari ordainketa.

14. Alkiza plaza 3ko an kokatua dagoen lokalaren erosketa.

15. Beste batzuk

16. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENAK

- 2023ko ekainaren 27ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 40/2023tik 57/2023 arteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK S.L.	2.722,50
GOIENER	542,33
GOIENER	200,24
GOIENER	19,16
GOIENER	71,26
GOIENER	104,97
GOIENER	68,81
GOIENER	18,99
GOIENER	35,24
GOIENER	23,00



ALKIZAKO UDALA

GOIENER	168,76
GOIENER	14,93
GOIENER	10,33
GOIENER	24,53
GOIENER	31,76
GOIENER	4,28
QUISER	802,40
IZFE	2.089,54
IZFE	38,24
IZFE	10,10
GOIENER	18,82
EGIMENDI	50,82
EGIMENDI	155,28
TRANSPORTES ERAUSKIN	652,19
DIMARPE	204,45
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	345,46
EBA ERKIZIA	1.297,35
QUISER	1,03
KIROLZER	31,21
GUREAK MARKETING	0,57
AIZKIBEL	72,48
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	34,49
KEY-LAN	18,63
CALPARSORO INDUSTRIAL	41,59
OSCAR GALINDO	133,10
EGIMENDI	696,21
BABESA SUZAI	136,65
MAQUELSA	10,25
UDALATX	642,87
OTIS	504,32
SOLRED	218,53
DIONISIO ORMAZABAL	12,51
ARGITU-ASESORES	186,45
CALCOSA	84,70
ULAHI ORONA	648,57
S.G.A.E.	200,99
S.G.A.E.	206,45
S.G.A.E.	111,40



ALKIZAKO UDALA

S.G.A.E.	108,90
S.G.A.E.	121,00
S.G.A.E.	146,11
GOIENER	24,94
GOINER	25,31
GOIENER	29,79
GOIENER	240,74
GOIENER	9,84
GOIENER	4,26
GOIENER	13,64
GOIENER	139,86
GOIENER	633,74
QUISER	374,47
ARREGI ETXABE JUAN JOSE S.A.	456,00
GAZTEZULO ALDIZKARIA	30,00
FONTANERIA ANTZIETA	325,11
FONTANERIA ANTZIETA	142,90
URAK SOLUCIONES TECNICAS AL AGUA	1742,40
PIXEL IKUS ENTZUNEZKO EKOIZPENAK S.L.	242,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	348,00
SUBPRODUCTOS SATELL S.L.	1694,00
GOIENER S. COOP	14,85
GOIENER S. COOP	19,30
GOIENER S. COOP	116,29
GOIENER S. COOP	90,67
GOIENER S. COOP	3,72
GOIENER S. COOP	29,06
GOIENER S. COOP	286,79
GOIENER S. COOP	21,18
GOIENER S. COOP	11,68
GOIENER S. COOP	161,39
GOIENER S. COOP	8,34
GOIENER S. COOP	38,27
GOIENER S. COOP	165,41
GOIENER S. COOP	566,32
GOIENER S. COOP	127,44
GOIENER S. COOP	140,83
ORANGE ESPAGNE S.A.U	35,27



ALKIZAKO UDALA

CORREOS	16,46
ORANGE ESPAGNE S.A.U	251,47
NORTEGAS	140,90
MUTILOA IRAZUSTA ANDONI	880,00
KIROLZER	33,30
TINTA INPRIMATEGIA	469,18
PREMANK	700,00
PREMANK	709,92
OSCAR GALINDO BARROSO	133,10
ERKIZIA AROZTEGIA S.L.	47,92
GRENKE RENT S.L.	69,01
GRENKE RENT S.L.	214,17
TOLOSAKO JABETZA ERREGISTROA	11,28
TOLOSAKO JABETZA ERREGISTROA	36,36
NORTEGAS	283,73
NORTEGAS	356,71
EBA ERKIZIA BRION	1810,90
ARGITU ASESORES	235,18
PREST LAN BERTIKALAK S.L.	361,79
JOSELONTXOS TXARANGA	800,00
LYRECO	73,54
SOLRED S.A.	72,54
CALPARSORO INDUSTRIAL S.L.	64,30
MAQUELSA	49,51
COMERCIAL TREVIC S.L.U	491,31
ZURIARRAIN ITURGINTZA S.L.	314,60
GUREAK MARKETING	1,14
TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA	1011,90
GARRA S.L.	871,68

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **32.920,46** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

UEMAKO UDAL ORDEZKARIAREN ORDEZKOA IZENDATZEA



ALKIZAKO UDALA

Ikusita, 2023ko ekainaren 27an eginiko ez ohiko udalbatzan, Korporazioaren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan izango dituen ordezkariak izandatu zirela.

Ikusirik, Uemaren kasuan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez, izendatu zela Udal ordezkaria, baina bere ordezkoa ez zela izendatu.

Ikusita, Uematik idatzi bat jaso dela, non gomendatzen duten Udal ordezkariaren ordezkoa izendatzea.

Gaia azterturik, udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: UEMAKO Udal ordezkariaren ordezkoa ANA AGESTA ECHECOLONEA zinegotzia izendatzea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO 24 UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, ANDRAGORA, TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA KUDEATU, FINANTZATU, JARRAIPENA EGIN ETA KONTROLATZEKO

Ikusita Tolosaldeko emakumeen etxe bat izateko proiektua aldarrikatu zela Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioan (2009-2011), eta 2012an Tolosako emakumeek haien espazio propio izatea eskatu zutela.

Ikusita 2023ko maiatzaren 4an, 30/2023 Alkatetza ebazpen bidez Tolosaldea Garatzen S.A. elkarteari, Andragora, Tolosaldeako Emakumeen Etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko enkargua eman zitzaiola.

Ikusita Tolosaldeko emakumeen etxearen helburu orokorra ondorengoa izango dela: Emakumeen topaketa, eztabaida, ikaskuntza eta ahalduntzerako gune seguru eta kolektibo bat izatea, agenda feminista politikaren erdiko ardatzean kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuta, desberdintasunak eta izan litezkeen intersekzio kontuan harturik, oraingo agenda inplikaturako eragileekin zabaldurik, eta beharrezko tresnak eta metodologiak berriturik.



ALKIZAKO UDALA

Ikusita Emakumeen etxea kudeatu, finantzatu, jarraipena egin eta kontrolatzeko, Tolosaldeko 24 udalek onestu dezaten hitzarmen zirriborro bat prestatu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko 24 udalen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, Andragora, Tolosaldeko emakumeen etxea kudeatu, finantzatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.

BIGARRENA: Alkizako Alkate-Lehendakaria, Inaki Irazabalbeitia Fernandez jauna ahalmenu, erabaki hau aurrera eramateko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako udalari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

2022 URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESPENA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2023 urteko maiatzaren 29 Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2022 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.



ALKIZAKO UDALA

BIGARRENA.- 2022ko ekitaldiko Kontu Orokorren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
2/2023 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Ikusita Alkizako hiri antolamenduko Plan orokorra idazteko lizitazioa onartu behar dela.

Ikusita, Plan orokorra idazteko gastua urte desberdinetan gauzatuko dela.

Ikusita, Alkiza plaza 3an kokatua dagoen lokala erosi behar duela udalak, bere ordainketa urte desberdinetan egin behar delarik.

Hauek horrela, ezinbestekoa da, 2/2023 kreditu aldaketa onartzea, konpromiso kreditu moduan.

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea egin dela, konpromiso-kredituen modalitatean 2023/2.

Kontu-hartzaileak emandako txosten eta ziurtagiriaren arabera espedientea bat dator aplikagarria zaion legearekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, konkretuki 22 artikuluetan ezarritakoarekin.

ZUZENBIDE OINARRIAK:

-21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

-7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Horregatik guztiagatik, udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Hasiera batez onartzea udal aurrekontuko konpromiso kredituen 2023/2 aldaketa espedientea.

KONPROMISO KREDITUAK: 2023/2



ALKIZAKO UDALA

Partida	Azalpena	2023	2024	2025	2026
642.151.00.01	Plan orokorraren idazketa	35.500	49.000	49.000	49.000
682.920.00.01	Erretore etxea	28.866,67	28.866,67	28.866,67	
	GUZTIRA	64.366,67	77.866,67	77.866,67	49.000

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea hamabost laneguneko epean, behin iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratuta.

HIRUGARRENA: Aurrekontua Konpromiso bidez aldatzeko 2023/2 espedienteak aldaketaren inguruko erabakia behin betikoa izango da, eta beraz ez du erabaki berririk behariko, baldin eta, jendaurrean jarri eta handik hamabost lanegun igaro ondoren, ez bada erreklamaziorik aurkezten.

ZORTZIGARREN PUNTUA

3/2023 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ONESPENA

Udala honen 2023 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko Kreditu gehigarriak bidez egin beharreko 3/2023 kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA



ALKIZAKO UDALA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.141.153.40.01 2023	AGUAZILAREN LAGUNTZAILEA	1.000,00	1.500,00	2.500,00
1 0000.162.920.00.01 2023	FORMAZIOA	100,00	100,00	200,00
1 0000.160.920.00.05 2023	ASISTENTZIA FARMA.	700,00	10,00	710,00
1 0000.204.920.00.01 2023	FOTOKOPIAGAILUAREN RENTING-A	600,00	400,00	1.000,00
1 0000.210.153.04.01 2023	AZPIEGITURA ETA ZERBITZUEN MANTENTZEA	2.000,00	5.000,00	7.000,00
1 0000.210.165.00.01 2023	ARGITERI PUBLIKOAREN MANTENTZEA	800,00	1.000,00	1.800,00
1 0000.212.230.00.01 2023	DON JUANENA IGOGAILU MANTENIMENDUA	2.000,00	600,00	2.600,00
1 0000.212.311.00.01 2023	DESFIBRILADORE MANTENIMENDUA	350,00	2,00	352,00
1 0000.212.920.00.01 2023	Elizako erlojuaren konpontze lanak	2.200,00	10,00	2.210,00
1 0000.221.230.00.03 2023	DON JUANENA GASA	1.000,00	400,00	1.400,00
1 0000.221.320.00.03 2023	HAUR ESKOLA GASA	800,00	1.500,00	2.300,00
1 0000.221.320.00.04 2023	PELLETA	1.500,00	1.500,00	3.000,00
1 0000.221.330.00.03 2023	KULTUR ETXEA GASA	700,00	300,00	1.000,00
1 0000.221.340.00.01 2023	FRONTOIKO ARGINDARRA	300,00	500,00	800,00



ALKIZAKO UDALA

1 0000.226.161.00.01 2023	URAREN KANONA	500,00	1.000,00	1.500,00
1 0000.226.231.50.06 2023	Berdintasun ekintzak	1.000,00	1.310,00	2.310,00
1 0000.227.150.00.07 2023	AHOLKULARITZA HIRIGINTZA	18.000,00	2.908,00	20.908,00
1 0000.227.924.00.09 2023	udal hauteskundeetako gastuak	0,00	500,00	500,00
1 0000.231.920.00.01 2023	UDALKIDEEN DIETAK, LOKOMOZIO	600,00	500,00	1.100,00
1 0000.480.335.00.01 2023	EUSKERAKO DIRULAGUNTZAK	1.000,00	200,00	1.200,00
1 0000.421.230.00.01 2023	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- G.Z	20.000,00	1.000,00	21.000,00
1 0000.421.330.00.01 2023	AIZTONDO MANKOMUNITATEA- KULTURA	4.500,00	1.500,00	6.000,00
1 0000.601.153.04.01 2023	herri bideak konponketak	17.000,00	28.800,00	45.800,00
1 0000.683.933.00.02 2023	HERRI OSTATUKO BERRIKUNTZAK	8.000,00	8.134,00	16.134,00
1 0000.226.231.50.05 2023	BERDINBIDEAN EGITARAUA	500,00	1.500,00	2.000,00
1 0000.226.920.00.04 2023	aholkularitza juridikoa	7.000,00	1.900,00	8.900,00
1 0000.602.336.00.01 2023	Indusketak: ondare arkeologikoak	1.000,00	9.778,44	10.778,44
GUZTIRA		93.150,00	71.852,44	165.002,44

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.933.00.01 2023	Landa eremuak. Herri ostatua	4.350,94
c	2 0000.720.454.00.01 2023	Landa bideak dirulaguntza	13.000,00
a	2 0000.870.000.00.01 2023	KREDITU GERAKINA 2022	50.047,60



ALKIZAKO UDALA

c	2 0000.720.336.00.03 2023	OLATZAZPIKO INDUSKETA DIRULAGUNTZA	4.453,90
FINANTZAKETA GUZTIRA			71.852,44

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

UDAL GARBITZAILEAREN ABUZTUKO OPORRAK DIRELA ETA HONI ORDEZKATZEKO A.M. ANDREARI LAN KONTRATUA

Ikusirik, 2022ko uztailaren 28an egindako Udalbatzarrean, Alkizako udaletxeko garbitzailearen ordezkapenak egiteko lan poltsa bat osatu zela.

Ikusirik Alkizako udaleko garbitzaileak abuztuaren 1etik 31ra oporrak dituela.

Ikusirik, aipaturiko lan poltsa horretatik lehentasuna dutela langabezia daudenak.

Ikusirik, aipaturiko lan poltsa horretan daudenetatik A.M. andrea langabezia dagoen bakarra dela.

Ondorioz, Udalbatza honi proposatzen zaio A.M. andrea izan dadila Alkizako udaleko garbitzailearen abuztuko oporrak egingo duena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen oporraldirako ordezkapena egiteko, 2022ko uztailearen 28an Udalbatzarrak onetsitako lan poltsa erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: A.M. andreari lan harremaneko kontratua egitea, abuztuaren 1etik 31ra bitartean, udaletxeko garbitzaile moduan dagozkion lanak egin ditzan. Astean 20 ordutako jardunaldi batekin.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIAREN ONESPENA

Ikusirik Udal langileek aurkeztu dituztela 2023 urterako lan eta opor egutegiak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal langileek aurkezturiko 2023 urterako opor egutegiaren onespena.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

V.B.S. ETA D.B.P. JAUN/ANDREAK EUSKARA IKASTEKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik D.B.P. jaunak eta V.B.S. andreak eginiko eskaerak, ondorengoak direlarik:

-D.B.P. jaunak azaltzen du Lasarte Oriako udal euskaltegian, 2022/2023 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egin duela, A1. euskara maila lortzeko. Ikastaroaren kostua 496,25 eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dio.

-V.B.S. andreak azaltzen du Tolosako Aitzol udal euskaltegian, 2022/2023 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egin duela, B1B1. euskara maila lortzeko. Ikastaroaren kostua 636,83 eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalarari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik D.P.B. eta V.B.S. jaun/andreak betetzen dituztela diru-laguntzak jasotzeko baldintza guztiak.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- D.B.P. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, hau da, 2022/2023 ikasturtean egin duen euskara ikastarorako 496,25 eurotako diru-laguntza ematea eta dagokion ordainketa egin dadin agintzea.

BIGARRENA.- V.B.S. andreak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, hau da, 2022/2023 ikasturtean egin duen euskara ikastarorako 636,83 eurotako diru-laguntza ematea eta dagokion ordainketa egin dadin agintzea.

HIRUGARRENA.- 496,25 euro eta 636,83 eurotako gastuak onestea.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri D.P.B. eta V.B.S. jaun/andreari ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2023ko 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2023 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 13.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 13.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2023 ekitaldiko 3. eta 4. hiru hilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01 eta 421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 10.500,00 euro
- Kultura: 2.500,00 euro

BIGARRENA.- 13.000,00 eurotako gastua onartzea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA

AIZTONDO PILOTA TXAPELKETAREN KITAPENA DELA ETA ZIZURKILGO UDALARI ORDAINKETA

Ikusita, Zizurkilgo udalak helarazitako idatzia, non azaltzen duen 2023ko otsaila eta maiatza bitartean Aiztondo pilota txapelketa egin dela.

Lehiaketaren antolatzaileek hartutako erabakiaren arabera, txapelketa osoan egiten diren gastuak udalerrri bakoitzeko biztanle-kopuruaren arabera likidatu behar dira. Nahiz eta ordainketa osoa Zizurkilgo udalak egin, udalerrri bakoitzari bere kitapena bidali zaio.

Beraz, Kitapena kontutan harturik, Alkizako udalari 79,88euro ordaintzea egokitu zaio.

Gaia azterturik udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Zizurkilgo udalari, 79,88 euroko ordainketa egin dadin agintzea, 2023ko otsaila eta maiatza bitartean jokatu den Aiztondo pilota txapelketan izandako gastuen kitapena izanik.

BIGARRENA: 79,88 euroko gastua onestea, udal aurrekontuetako 481.340.00.01 kontu sailaren kontura ordainketa egin dadin agintzea, Kirol gastuak.

HIRUGARRENA: Dekretu honen berri hurrengo Udalbatza arruntean ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

ALKIZA PLAZA 3AN KOKATUA DAGOEN LOKALAREN EROSKETA.



ALKIZAKO UDALA

Ikusirik Udal honek Maria Asuncion Bengoa Legarra andrearen ondasun higiezinak kostu bidez eta zuzenean eskuratzeko interesa duela (Alkiza Plaza, 3), ondasun horrek bere kokapenari, irisgarritasunari, forma perimetralari eta erabilera publiko balioaniztunerako azalera egokiari lotutako ezaugarriak dituelako.

Ikusirik Maria Asuncion Bengoa Legarrak, jabe den aldetik, lehen aipatutako ondasun higiezinaren jabari osoa Alkizako Udalari eskualdatzeko konpromezua hartu duela bere gain, 86.600,00 euroko zenbatekoarekin. Alkizako Udalak ordainduko ditu hiru ekitalditan (2023, 2024 eta 2025), eta ekitaldi bakoitzean 28.866,67 euro ordainduko ditu.

Idazkaritzaren 2023ko uztailaren 11ko txosten juridikoa aztertu da, ondasun higiezinak zuzenean eskuratzeko espediente hau izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari eta aplikatu beharreko legeriari buruzkoa.

Ikusirik 2023ko uztailaren 13ko txosten teknikoa eta 2023ko uztailaren 12ko memoria, non jasotzen baitira bai higiezinaren balorazioa eta ezaugarriak, bai ondasun higiezinak erabilera edo zerbitzu balioaniztunerako zuzenean erosteko premiaren egiaztapena eta justifikazioa.

Ikusirik aipatutako memorian, espediente honen xede den higiezinak eskuratzeko prozedurarik egokientzat, zuzenean eskuratzeko prozedura erabiltzea justifikatzen dela, eta, beraz, lizitaziorako prozedura publikoak alde batera uzten direla, kasu honetan inguruabar hauek bereziki gertatzen direlako:

Bere garaian, Casa Cural, bere osotasunean, ALKIZAKO TOURSEKO SAN MARTIN PARROKIA elizarena izan zen. Eliza hau, Dibisio Horizontala egin ondoren, sail edo elementu pribatiboak pertsona ezberdinei salduz joan zen. Besteak beste, Alkizako Udalari, gaur egun eraikin osoaren jabea baita, txosten honen xede den higiezinak eta hura eragiten duen salerosketa zuzena izan ezik. Historikoki eraikina erabilera desberdinetarako erabili izan da, hala, 2. eta 3. solairuak barnetegi/eskola gisa erabili dira 40 urtez.

Eba Erkizia arkitektoak Udalaren kontsultan egindako hirigintza-txostenaren arabera, indarrean dagoen hirigintza-legediaren arabera,



ALKIZAKO UDALA

eraikina dotaziotzat jotzen da, EKIPAMENDU-SISTEMA OROKORTZAT, eta, beraz, herritarrei zerbitzua emateko bokazioa du, erabilera administrazio-, kultura-, irakaskuntza- eta osasun-xedeetara edo gizarte-intereseko gainerako zerbitzuetara bideratuz.

Era berean, finkaren eranskinaren zati bat, 278 m² ingurukoa, “baratze” gisa deskribatua eta gaur egun lorategira destinatua dagoena, Alkizako arau subsidiarioei jarraiki, Espazio Libreen Sistema Orokorrean sartzen da, esku-hartzea desjabetze sistema bakarraren bidez gauzatuz.

Eraikina herriko plazan dago, gainerako zuzkidura-eraikinekin batera, hala nola frontoiarekin, eskolarekin eta elizarekin. Gaur egun, udal-liburutegia eta erabilera anitzeko aretoa ditu, herritarren eta udalerriko elkarte guztien eskura, xede soziala osatzen duten jardueren topagune eta antolaleku gisa. Ondasun higiezinak eskuratzeak eskaintza hori zabaltzen du eta eraikin osoa Alkizako biztanleen eskura jartzen du.

Gaur egun esku pribatuetan dagoen eraikina eskuratzeak, beraz, Alkizako Arau Subsidiarioetako aurreikuspenak betetzen ditu, eta eraikin osoa zuzkiduretarako erabiltzen da.

Eskuratu nahi den ondasun higiezinaren egokitasuna zalantzarik gabe dago, udalerrri osoan ez baitago ezaugarri berak dituen beste ondasunik. Beraz, behar bezala justifikatuta gelditzen da zuzeneko eskuratze-prozedura.

Ikusirik Udal Kontu-hartzaitzaren 2023ko uztailaren 13ko fiskalizazio-txostena, eragiketaren ehunekoari buruzkoa aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez eta aurrekontu-kontsignazioa izateari dagokionez.

Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 11. artikuluan eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 116. artikuluan ezarritakoa bete da.

Kontuan hartu da espedientea behar bezala arrazoituta dagoela eta proposatzen den prozedura bat datorrela kontratazio-arloan indarrean dagoen araudiarekin, Idazkaritzaren Txostenean adierazitakoarekin bat etorriz. Txosten horretan, gainera, adierazten da kontratatzeke eskumena duen organoa Osoko Bilkura dela, Sektore



ALKIZAKO UDALA

Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 9. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz. Izan ere, kontratuaren zenbatekoa 86.600,00 eurokoa da, indarrean dagoen udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 gainditzen baitu. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Maria Asuncion Bengoa Legarra andrearen Alkiza Plazako 3. zenbakian kokatuta dagoen eta erabilera publiko balioaniztunerako ezaugarri egokiak eta beharrezkoak dituen ondasun higiezia zuzenean eskuratzea onartzea. Zenbatekoa Alkizako Udalak ordainduko du ekitaldi bakoitzean, 2023,2024 eta 2025 (28.866,67 euro urtero), eta Udalak konprometitu egin beharko du zenbateko hori urte bakoitzeko aurrekontu orokorrean.

BIGARRENA.- Indarrean dagoen aurrekontuko 682.920.00.01 partidaren kontura xedatzea gastua eta ondorengo gastuak.

HIRUGARRENA.- Ahalmena ematea Udalbatza honetako Alkate-Udalburuari, edozein agiri sinatzeko, erabaki hau eraginkorra izan dadin beharrezkoak direnak.

LAUGARRENA.- Maria Asuncion Bengoa Legarra higiezinaren jabeari ebazpen hau jakinaraztea eta notarioaren aurrean eskritura publiko bidez kontratua sinatzeko eskaera egitea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20:21 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA

IDAZKARIAK